

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udaleko partaidetzazko aurrekontuen
prozesua
2019ko MEMORIA TXOSTENA

AURKIBIDEA

1	AURREKARIAK ETA LABURPENA	3
2	HELBURUAK ETA IKUSPEGIA.....	4
2.1	XEDEA ETA HELBURUAK.....	4
2.2	IKUSPEGIA: PEDAGOGIA ETA PARTE-HARTZE AHALIK ETA ZABALENA	4
3	PROZESUKO BALIOAK.....	6
3.1	GENERO BERDINTASUNA	6
3.1.1	Lantaldearen osaera orekatua.....	6
3.1.2	Komunikazioa.....	6
3.2	INGURUMENAREN BABESA.....	7
3.3	ANIZTASUNAREKIKO DISKRIMINAZIO EZA	7
3.4	HIZKUNTZEN KUDEAKETA	8
4	PROZESUAK IBILBIDEA ETA KRONOGRAMA	9
5	KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA	10
5.1	KOMUNIKAZIOA	10
5.2	KOORDINAZIOA.....	10
6	EMAITZAK	12
6.1	PARTE-HARTZE DATUAK.....	12
6.2	PROZESUKO EMAITZAK.....	13
6.3	HERRITARREK EGINDAKO AUKERAKETA	13
6.4	HERRITARREK EGINDAKO EKARPEN GEHIGARRIAK	16

1 AURREKARIAK ETA LABURPENA


Arrasateko Udalak 2016an egin zuen Innobasqueren laguntzaz herritarren parte-hartzearen inguruko lanketa berezia. Urte beteko iraupena izan zuen lanketa honetan Eusko Jaurlaritzak bideratutako Liburu zuria inplementatu nahi izan zen. Proiektu horren emaitzen artean Arrasateko Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek herritarren parte-hartzearekiko duten ikuspegia jaso geratu zen, eta ordutik partaidetzazko hainbat egitasmo eraman ditu aurrera: galdeketak, berariazko web ataria, partaidetzako ordenantzaren lanketa eta herritarrenganako irismen handikoa den partaidetzazko aurrekontuen urtez urteko prozesua.

2017ko udaberrian abiatu zuen 2018ko partaidetzazko aurrekontuak lantzeko prozesua. Prozesua Arrasateko Udalak landu duen partaidetzazko proiektu orokor nagusia bihurtzen ari da eta parte-hartze datuei dagokienez arrakastatsua izaten ari da, baita 2019ko udal aurrekontuei dagokien ekitaldian ere. Urtez urteko prozesuok Emunek diseinatu eta dinamizatu ditu Arrasateko Udalarekiko lankidetzaz.

Aurreko urteetan bezala, 2019ko udal aurrekontuetako 250.000 euroko partida zertan gastatu/inbertitu herritarrek proposatu eta erabaki dute. Horretarako,

- proposamen berriak egiteko aukera zabaldu zuen udaberrian udalak
- Udalak proposamen berrien bideragarritasuna aztertu zuen urria bitarte eta iaiztik zetozen proposamenei gehitu zitzaizkien berriak
- eta azaroan zehar bozketagai egon diren herritarren 113 proposamenen artean herritar orok aukera izan du 3 gustukoenen alde bozka ponderatua Internetez emateko.

Eskuartean duzuen txosten honek Arrasaten partaidetzazko aurrekontuen prozesuaren ibilbidea eta datuak jasotzen ditu.



2 HELBURUAK ETA IKUSPEGIA

2.1 XEDEA ETA HELBURUAK

Arrasateko Udaleko partaidetzazko aurrekontuen prozesuaren xedea **kudeaketa publiko eraginkorragoa** lortzea izan da, herritarrengandik ikuspegi gehiago jaso eta beren behar errealean berri jaso dituelako Udalak. Kudeaketa publikoaren inguruko **pedagogia eginez** eta erakundearen **gardentasuna** handituz, parte-hartze prozesuarekin **biztanleak hiritar** izatera pasa daitezzen nahi izan du Udalak. Era berean, partaidetzazko aurrekontuen prozesu honek **iraunkortasun ikuspegia** du; horregatik bilatu eta hartzen dira prozesuaren ezaugarri eta irizpideen inguruko erabakiak Udal Gobernu eta oposizioko ordezkarien kontsentsuarekin.

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuak **demokrazian sakontzea du xede**, herritarren parte hartzean oinarrituta plangintza publikoaren demokratizazioa, demokrazia-sistema ordezkatzailaz haragoko demokratizazioa eta ekonomiaren demokratizazioa sustatzea.

Demokrazian sakontzeko, herritartasun aktiboa sustatu eta erantzukidetasunean hezteko eta erakundearen gardentasuna handitzeko Arrasateko Udalak egiten duen ahaleginarekin **herritarren erakunde publikoekiko konfiantza** handitu nahi da eta era berean, herritarrekiko konfiantza deklarazio bat ere izan nahi du.

Prozesuaren **helburu nagusia** izan da **2019ko aurrekontuaren barruan, 250.000,00€ko partidaren erabilera modu parte-hartzailean erabakitzea, ahalik eta parte-hartze zabalena** erabakitzea.

Helburu nagusi horiekin batera, ordea, izan ditugu **zeharkako** beste **helburu hauek** ere:

- Herritarren erakunde publikoekiko konfiantza handitzea.
- Herritartasunean eta erantzukidetasunean sakontzea.
- Udalean eta herritarrengan politika-eredu parte hartzailearen kultura sustatzea.
- Erakunde publiko eta herritarren artean elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea.
- Partaide bakoitzaren eta denen berdintasuna eta garrantzia indartzea: edozein dela herrian duen rola, funtzioa, ardua; edozein dela duen generoa; edozein dela duen adina; edozein dela ordezkatzeko duen subjektua, eta abar.

2.2 IKUSPEGIA: PEDAGOGIA ETA PARTE-HARTZE AHALIK ETA ZABALENA

Parte-hartze prozesu honetan **herritarrak protagonista** izan daitezzen nahi izan du Udalak, Arrasateko Udalaren aurrekontuen inguruko erabakimenean **ahalik eta herritar gehien** inplikatu daitezzen.

Komunikazio alorrean esfortzua egin du Udalak, tokiko hedabideen bidez informazio hedatuz, etxe guztietara paperezko informazioa helaraziz (esku-orri bidez), kaleetan prozesua bistaratzuz (kartelen bidez), Interneten bannerrak erabiliz...





Halaber, partaidetzazko prozesua bera nolabaiteko **herritartasun eskola** izan dadin, prozesuan alderdi pedagogikoa ere landu da eta, zentzu horretan, bozketaldian 2 astez hainbat udal eraikinetan Emuneko aholkulariak jendaurrean egon dira, **herritarren parte-hartzea sustatzen**, prozesuaren berri emanez, bozketagai zeuden proposamenen inguruko azalpenak emanez eta botoa emateko prozeduran in-situ lagunduz.

Jendaurreko laguntza hori azaroaren 12 eta 21 artean egunero goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (17:00-19:00) eman du Udalak Emuneko aholkularien bidez, gune hauetan:

- BAZ arreta zentroan.
- Kulturate kulturgunean.
- Musakolako Udal Kiroldegian.
- Etxaluze adinekoen egoitzan.
- Santa Marina auzoko liburutegian.
- Gazte Bulegoan.



Hartara, herritar sektore desberdinetara iristea lortu du Udalak: erdiguneaz gain auzoetara, adin eta genero desberdineko herritarrengana, lan-ordutegi desberdinak dituztenengana, jatorri eta hizkuntza komunitate desberdinetako herritarrengana, ordenagailuak edo Internet erabiltzeko erraztasunik ez dutenengana...

3 PROZESUKO BALIOAK

Arrasateko Udalak, Emunen lankidetzarekin, partaidetzazko aurrekontuen prozesu honetan hainbat balio txertatu nahi izan ditu. Balio horiek eta horiekiko neurri zehatzak hauek izan dira:

3.1 GENERO BERDINTASUNA

Emunek parte-hartze prozesuan zehar hainbat alderditan genero berdintasuna sustatzeko irizpideak aplikatu ditu, **helburu hauek** bere gain hartuta: emakumeen eta gizonen partaidetza inklusiboa lortzea; emakumeen eta gizonen premiak eta beharrak identifikatzea; genero diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihestea; emakumeen zein gizonen parte-hartze orekatua sustatzea; emakume zein gizonen rol aniztasunari bide ematea.

Helburu horiek lortzeko bidean parte hartze prozesu honetan Emunek hainbat neurri hartu ditu.

3.1.1 Lantaldearen osaera orekatua

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuan lan egingo duen lantaldearen erdia baino gehiago emakumez osatutakoa da; prozesuko lanetan, guztira, Emuneko 9 emakumek eta 8 gizonen parte hartu du. Jendaurreko guneetan, berriz, herritarrentzako laguntza presentziala Emuneko 8 emakumek eta 6 gizonen parte hartu du.

3.1.2 Komunikazioa

Parte hartze ekimen orotan bezala, partaidetzazko aurrekontuen prozesu honetan komunikazio alorrak bere biziko garrantzia hartuko du eta komunikazio estrategia, ekintza zein euskarrietan genero berdintasunerako neurriak hartu dira prozesuan:

- Jada emakumeen presentzia badaukaten guneetan jarri dira laguntza presentzialetarako guneak: udal arreta guneak, liburutegi eta kultur guneak, kirol guneak, adinekoen egoitza, gazte bulegoa...
- Parte hartzeko deia egiteko eta prozesuko irudi izango diren **ordezkarien artean genero oreka** eman da.
- Erabiliko diren **komunikazio euskarrietan hizkera sexista saihestu** dugu, pertsonen argazkietan genero oreka mantendu dugu eta ez dugu argazki zein irudi sexistarik erabili.



3.2 INGURUMENAREN BABESA

Arrasateko Udalak ingurumenaren babeserako dituen irizpideak hartu dira kontuan prozesuan eta hainbat neurri hartu ditugu:

- Paperaren erabilera minimizatu dugu eta baliabide digitalak ahalik eta gehien erabili, batez ere proposamen eta bozka paperak saihestuz (herritarrek proposamenak egitea eta botoa ematea soilik Internetez egin ahal izan da).
- Etxez etxe banatu diren esku-orriek dagokienez, soilik beharrezko kopurua inprimatu da, eta gune presentzialetan agortu ahala inprimatzen ziren gehiago, kopuru txikietan.
- Gastu eta inbertsio proposamenak bistaratzeko prozesuan ingurumen arloak bere lekua izan du proposamenak biltzeko gai gisa.



3.3 ANIZTASUNAREKIKO DISKRIMINAZIO EZA

Parte-hartzaileen aniztasunak prozesu parte hartzaileak aberasten ditu, sortutako ideien kopurua eta aniztasuna handituz eta herritarren espektro gehiagotarako ideien sormena sustatuz. Prozesuan zehar hainbat neurri hartu ditugu Arrasateko herritarren artean dagoen aniztasunak isla izan dezan partaidetzako aurrekontuen prozesuan:

- Komunikazio euskarriak (webgunea, kartelak, esku-orriak, proposamenen zerrendak...) bi hizkuntzetan atera dira, euskaraz eta gaztelaniaz, eta hizkera diskriminatzaileak saihestu ditugu.
- Komunikazio euskarri horiek herriko bazter guztietara iritsi dira, batez ere etxez etxeko esku-orriari esker.
- Laguntza presentzialetarako guneak ahalik eta herritar espektro gehienetara iristeko moduko lekuetan jarri dira: auzo desberdinetan, adin desberdineko herritarren bilguneetan, genero aldetik zeharka ere diskriminatzaileak ez diren guneetan, jatorri desberdineko herritarren bilgune izan daitezkeenak (BAZ, Kulturate...)

3.4 HIZKUNTZEN KUDEAKETA


Emunek partaidetzazko aurrekontuen prozesuan garatuko dituen jarduera eta zerbitzu guztiak elebidunak izan dira, euskarazkoak eta gaztelaniazkoak. Koordinazio zein gune presentzialetan parte hartu duten Emuneko aholkulariek bi hizkuntzotan ahoz nahiz idatziz komunikatzeko gaitasun osoa eta praktika izan dute, eta komunikazio ekintzetarako mezuak eta edukiak bi hizkuntzetan prestatu ditugu, euskarari lehentasuna emanez. Emuneko aholkulariek gutxienez euskarazko C-1 / EGA maila daukate eta, beraz, bermatu dute bi hizkuntza ofizialetan gune presentzialetan herritarrak kalitatez artatzeko daukaten eskubidea.

4 PROZESUAK IBILBIDEA ETA KRONOGRAMA

Arrasateko udalak 2019ko aurrekontuaren lanketa parte-hartzailea egikaritu du, jarraian bigarren ekitaldiz. Lanketa honen bidez, herritarrek hautemandako beharretan oinarrituta, 250.000,00€ko diru-partida bat zertan inbertituko den erabaki da. 2019ko aurrekontu parte hartzaileen lanketa proposamen bideragarrien bozketan oinarritu da gehien bat. Erabakimena herritarren esku egon da erabat, hain zuzen ere beraiek aurten zein aurreko beste prozesuan proposatutakoak baitira proiektuak eta horien artean aukeratu baitituzte.

2019ko aurrekontua modu parte-hartzailean lantzeko prozesuak hainbat urrats izan ditu:

1. Aurrelanak: **planifikazioa, koordinazioa eta kontsentsua**, Udalaren eta Emun aholkularitzaren artean, Talde Eragilearen baitan eta alderdi guztien parte-hartzearekin.
2. Prozesuaren **zabalkundea** eta parte-hartzerako gonbita egitea: 2019ko negu/udaberria (proposatze fasea) eta udazkenean (aukeratze edo bozkatze fasea). Pentsaurrekoak, tokiko hedabideetako albisteak, web bannerrak, flyerrak eta esku-orriak, kartelak, mailingak...
3. Herritarren artean **proiektuak proposatzea** sustatzea eta herritarren proposamenak jasotzea (otsaila-martxoan).
4. Herritarren proposamenen **bideragarritasuna aztertzea**, proposamen bakoitza dagokion udal sailean (udaberri eta udan).
5. Herritarren artean proiektuak **bozkatzea** sustatzea, komunikabideen bidez eta komunikazio-euskarri digital zein fisikoen bidez, batez ere etxe guztietara bidalitako esku-orrien bidez (urria-azaroan), eta herritarrentzako arretarako gune presentzialak dinamizatzea (azaroan)
6. **Proiektuak bozkatu eta aukeratzea**, on-line eta presentzialki, guneetan (azaroaren 11 eta 24 artean). Behin bozkatze fasea amaituta, jasotako botoak aztertu eta boto gehien jaso duten proposamenak identifikatu eta prozesuaren inguruko estatistikak aterako dira (zenbat boto, zenbat kanal bakoitzeko, boto emaileen generoa...). Herritarrei informazio horren guztiaren berri emango die Udalak.
7. Prozesuaren **ebaluazioa** egitea (azaro bukaeran eta abenduan). Prozesuaren 2019ko ekitaldia ixteko azken balorazioa egin eta ekintza zuzentzaileak identifikatuko dira. Horrez gain, prozesua sistematizatzeko txostena idatziko da (behin-behineko bertsioa da txosten hau bera).
8. Gailendutako gastu/inbertsio **proposamenak martxan jartzea** (azaro bukaeran eta abenduan) eta herritarren ideien egikaritzearen inguruko informazio horren **itzulketa** egitea herritarrei.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

SARRERA


ARRASATE INFORMAZIO PRAKTIKOA UDALA TRAMITAEK ONLINE

Sarrera / Albisteak / Jose Luis Iñarrarako hobekuntzak, Santa Marina auzoa egokitzea eta bidegorrian komun publikoak jartzea, partaidetzazko aurrekontuetan proiekturik bozkatuenak

2019/12/04

Guztira 113 proposamen aurkeztu dira eta jasotako 725 botoen artean, aipatu hiruak izan dira herritarrek gehien babestu dituzten proiektuak

Jose Luis Iñarrarako hobekuntzak, Santa Marina auzoa egokitzea eta bidegorrian komun publikoak jartzea, partaidetzazko aurrekontuetan proiekturik bozkatuenak



5 KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA

5.1 KOMUNIKAZIOA

Prozesu honetako komunikazio helburu nagusia, prozesuko xede-talde direnen artean inpaktua eragin eta enpatia lortzea izan da, ahalik eta herritar gehien batez ere bozkatzeko prozesura erakartzeko; izan ere, aurreko ekitalditik jada zintzilik geratu ziren proposamen asko genituen eta aurten, proposamen berriak egiteko aukera bermatuta ere, indar komunikatibo berezia egin da ahalik eta bozka-emaile gehien lortzeko.. Partaidetzazko aurrekontuen prozesuko 2019ko ekitaldian egin ditugun ekintzetako batzuk hauek dira:

Fasea	Ekintza
Proiektua martxan jartzeko komunikazioa: prozesua martxan jarriko dela esan eta proposamenak egiteko eta bozkatzeko zein bide dauden azaltzea	<ul style="list-style-type: none"> - Prentsaurrekoak + bertako komunikabideekin lanketa berezia (Goiena Telebista eta aldizkaria, Mondraberrri, DV, Noticias de Gipuzkoa...) - Udaleko komunikazio kanaletan prozesuaren hasieraren berri eman eta gonbitea egin (webgunea, sare sozialak...) - Adierazpen libreko guneetan eta Udalaren paneletan azalpenak, kartelen bidez
Bozkatzeko fasea: prozesuaren garapenean informazioa zabaltzea, parte hartzea sustatu	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-orriak etxe guztietara bidali - Gune presentzialak – mahaiak - Azalpenak adinekoen etxeetan - Mailing-a
Hasierako irizpide-lanketan eta prozesuan zehar egindakoa eta emaitza komunikatzeko	<ul style="list-style-type: none"> - Talde politikoekin bilerak, prozesuko irizpideak adostu eta emaitzak aurkezteko - Prozesuaren ondorioak aurkeztu: aukeratutako proiektuak sozializatu + prozesuaren balorazioa (azaro bukaeran edo abenduan egiteke). - Prozesuaren eta bere emaitzen berri prentsaurrean eman (azaro bukaeran edo abenduan egiteke). - Gainerako komunikabideetara prentsa-oharrak bidali.

5.2 KOORDINAZIOA

Beheko taulan jaso ditugu prozesuko koordinazio gune bakoitzaren helburuak edo/eta funtzioak eta osaketarako proposamenak:

GUNEAK	HELBURUAK / FUNTZIOAK	OSAKETA
JARRAIPEN POLITIKOA (JP)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alderdi guztiek prozesuaren berri jasotzea aldi berean eta informazio iturri beretik 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alderdi politikoetako ordezkariak
KOORDINAZIO TALDEA (KT)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prozesuaren egunerokoaren ardura izan ▪ Egitasmoaren ekintzak koordinatu eta bideratu ▪ Talde eragilearen eta jarraipenerako espazioen deialdiak egin ▪ Beharrezko txostena(k) idatzi / berretsi 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiekturako Udalak jarritako koordinatzailea ▪ Emuneko aholkularia

TALDE ERAGILEA (TE)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prozesua antolatu eta martxan jarri ▪ Beharrezkoa bada, prozesua tekniko metodologikoki egokitu eta bideratu ▪ Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jaso eta trukatu ▪ Gainerako egiturak osatu eta martxan jarri ▪ Prozesuaren jarraipena egin ▪ Egitasmoari jarraipena egin, sor daitezkeen arazoan aurrean neurri zuzentzaileak jarri ▪ Prozesuaren eta emaitzen balorazioa egin ▪ Aurrera begirako proposamen zehatzak egin 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alkatea ▪ Komunikazioko eta Partaidetzako arduradun politikoa ▪ Herritarren partaidetzako teknikaria/informatikaria ▪ Idazkaria ▪ Emuneko aholkularia
EMUNEKO LANTALDEA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitasmoko saioak diseinatu, programatu, antolatu eta edukiz eta materialez hornitu. ▪ Gune presentzialetan herritarrei arreta eskaini ▪ Kolaboratzaileekiko (hizlariak, azpikontratazioa...) harremanak egin 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iñaki Ugalde ▪ Ainhoa Elices ▪ Denis Elortza ▪ Ihabar Arriaran ▪ Saioa Lizarralde ▪ Arantzazu Arana ▪ Olatz Dorransoro ▪ Oihana Unamuno ▪ Izar Larrañaga ▪ Xabat Amiano ▪ Oihana Barrutia ▪ Larraitz Madinabeitia ▪ Itxaso Telleria ▪ Ruben Beitia ▪ Mikeldi Zeberio ▪ Oihan Zubizarreta ▪ Ekain Zubizarreta

6 EMAITZAK

Partaidetzako aurrekontuen prozesu orotan mota askotako emaitzak lortu ohi dira, horietako asko ukiezinak edo esplizitaezinak, eta, horrenbestez, eta prozesuaren balorazio kualitatiboa egiteke dagoenez, hemen soilik emaitza ukigarriak jaso ditugu; alegia, batez ere parte-hartze datuak, prozesuko emaitzei dagozkienak eta herritarrek egindako ekarpen esplizituak.

6.1 PARTE-HARTZE DATUAK

Hauek dira herritarren parte-hartzearen inguruan jaso ditugun datuak:

Herritarrek 2019an egindako proposamenen kopurua	23
Prozesuari buruzko informazioa irakurtzeko aukera izan duten herritar kopurua	~%100*
Gune presentzialetan prozesuarekiko interesa azaldu duten edo/eta aholkularien azalpenak jaso dituzten herritarren kopurua	691**
Gune presentzialetan jasotako bestelako ekarpenen kopurua	67***
Gune presentzialetan botoa eman duten herritarrak	184
Zuzenean Internetez norbere kabuz eman dituzten herritarrak	541
Guztira (gune presentzialetan eta norbere gailuen bidez) botoa eman duten herritarrak	725
Boto-emaielen arteko emakumezkoen portzentajea	%49 (355 emak.)

OHARRAK:

*Arrasateko etxe guztietan banatu da esku-orria.

** BAZen 204, Kulturaten 245, Santa Marinako liburutegian 77, Kiroldegian 158, Etxaluzen 135, Gazte Bulegoan 56.

*** Ekarpen horiek guztiak atal honen bukaeran daude jasota.



6.2 PROZESUKO EMAITZAK

Hauek dira prozesuaren ibilbidearen inguruko zenbait datu:

Bozketara eramandako proposamen bideragarrien kopurua	113
Herritarrek aukeratu ahal izan dituzten proposamenen kopurua	3*
Botoren bat jaso duten proposamenen kopurua	113
250.000 euroko partida horretan lekua izan duten proposamen irabazleen kopurua	3**
Egikaritzeko bidean jarriko diren proposamen irabazleen aurrekontua, guztira	250.000€***

OHARRAK:

*Herritarrek aukeratutako lehen proposamenak 5 puntuko ponderazioa du, bigarrenak 2 puntukoa eta hirugarrenak puntu batekoa.

****Hauek dira proposamen "garaileak": Jose Luis Iñarrako jolas parkea zein espaloiak hobetu eta berritzea, Santa Marinako auzoa egokitzea eta bidegorrian komun publikoak jartzea.**

***Hirugarren geratutako proposamena partzialki exekutatu da, osorik egikaritzeak nabarmen igoko luke eta 250.000 euroko muga. Udalak aipatu proposamen horiek guztiak 2020 exekutatzen hasteko konpromisoa berretsi du, helburu izanik, posible den heinean, bere osotasunean exekutatu eta amaitzea.

6.3 HERRITARREK EGINDAKO AUKERAKETA

725 arrasatearrek erabaki dute udal aurrekontuko 250.000€ proiektu hauetara bideratzea:

- **Jose Luis Iñarrako jolas parkea zein espaloiak hobetu eta berritzera,**
- **Santa Marinako auzoa egokitzera,**
- **eta bidegorrian komun publikoak jartzera.**

Aipatu hiru proiektuak izan dira, beraz, herritarren boto ponderatu gehien jaso dituztenak eta, horrenbestez, baita 2020an martxan jarriko direnak ere. Kasu honetan, arrasatearrek egindako eskaera horiek aztertu ondoren, Udalak 100.000€ bideratuko ditu Jose Luis Iñarra kalea eta bertako jolas parkea hobetu eta berritzera, eta 35.000€ Santa Marina auzoan egokitzapen lanak egitera, aipatu bi eremuak gune atsegina eta irisgarriagoak bilakatzeko helburuz. Era berean, bidegorrian komun publikoak jartzearen proposamenak ere herritarren babesa jaso du eta horrenbestez, Udalak proiektu horretara bideratuko du 250.000€ak estali arte gelditzen den kontu-saila arrasatearren eskariari erantzuna emateko xedez.

Hauek dira herritarrek emandako boto ponderatuen emaitzak kontuan hartuta atera den proposamenen hurrenkera:

PROPOSAMENAREN IZENA	PUNTU KOP.	AURREKONTUA	Herritarren proposamenaren azalpena	Aurreikusitako proiektuaren ezaugarriak
Jose Luis Iñarrako espaloiak eta jolas parkea	508	100.000€	Me gustaría que se renovarían y se adecuarán a las personas de movilidad reducida, personas en silla de ruedas y carritos con bebés todas las aceras y pasos de cebra. También incluyo los columpios ya que están totalmente astillados y oxidados y son un peligro para nuestros hijos.	Proiektua bere osotasunean hartzea komeniko litzateke, nahiz gero han bertan garapenerako aukera ezberdinak aurreikusita utzi, unez uneko egoeraren arabera gauzatu ahal izateko. Honen harira, eta idazketa lanak hastearrekin batera, ekimen zehatzen ildo nagusiak zehaztu beharko lirateke
Santa Marina auzoa berriztea	364	35.000€	El barrio de Santa Marina está bastante desatendido. Frontón Parque infantil Carreteras / Aparcamientos Bloque de hormigón	Frontoiak margoketa baino gehiago eskatzen du . Lurra eta hormak pitzatuta daude. Parkeko jokoak ondo daude. Aurten lurra aldatu eta errebizatu dira jokoak. Las flores existentes son vivaces y en un hueco han fallado y se repondrán en breve. Sobre el pintado del muro, podría hacerse.
Komun publikoak bidegorrian	217	180.000€	Leku egokiak hauek izango lirateke: Kataide, Mugarri eta San Prontxio	Eskuharrenak aukeratu, kokapen zehatza aztertu, proiektu bakoitza idatzi, eta ondoren obrak gauzatu
Euskararen erabilera bultzatu	186	10.000€	Proposamenean hiru ideia lantzen dira: Kontzientziazio kanpaina Oinarrizko doako ikastaroak Merkatariei zuzendutako doako ikastaroak	Kontzientziazio kanpaina: euskararen erabilera sustatzeko kanpaina abian jarri daiteke gizarte eragileekin elkarlanean+komunikazioan aditua den enpresa batekin gaia landuz. Bestetik: -Oinarrizko doako ikastaroak: Jaurlaritza badabil bide hau urratzen, beraz, ideia hau etorkizunerako kontuan hartuko da datorren urtera begira aldaketak espero dira-eta arlo honetan. -Merkatariei zuzendutako ikastaroak: urteak daramatzagu merkatariei ikastaroak eskaintzen oso baldintza berezietan- ia doan, ordutegia eta programazioa moldatuta- Urte beterako aldaketa proposatzea ez da bideragarria ikusten.
Gasolinera	143	75.000€	“Gasolinera” plazan egokitzapenak egin, eguraldi txarrari aurre egiteko, jarduera gehiago egin ahal izateko (merkatua, kontzertuak, ekintza kulturalak ...)	Lehenik eta behin zer nahi den (eraikin bat ala estalpe bat) erabaki, horren arabera proiektua idatzi (zerbitzu osagarriak ere kontuan hartuz), eta ondoren obrak gauzatu
Elementos mecanizados de accesibilidad vertical	125	30.000€	Diferentes propuestas y con distintas ubicaciones acerca de instalación de ascensores, escaleras mecánicas o rampas mecánicas	250.000 € baino kostu handiagoa du lanak egitea eta horregatik proiektua idaztea proposatzen da. Mugikortasun planak planteatzen ditu 5 igogailu Arrasaten. Makatzenakoa Martxan dago eta lanak egiteko aurrekontua ia 1.000.000 eurokoa da. Beste 4 puntuetako batean proiektuarekin hasia bideratuko da bozketara.

Aisia unek eta estalitako haur parkeak	122	150.000€	Cubrición de todos los parques infantiles de Arrasate y adaptarlos con bancos, etc. para que cualquiera pueda utilizarlos durante todo el año.	El Ayuntamiento ya está trabajando en la cubrición de algunos parques. En el año 2017 el Ayuntamiento ha cubierto el parque infantil de Gorostiza y en 2018 se cubrirá el de Makatzena en el marco de las obras de urbanización de la zona. Así mismo, el Ayuntamiento está trabajando en la renovación del parque de Itxaropena, donde se debe decidir sobre la cubrición o no del parque. Se puede ampliar la partida para tal efecto.
Organizar charlas, jornadas, lecturas, cursos, etc, de divulgación para un público no especialista, en resumen, más actividad cultural	117	9.000€	Se llevaría a cabo en Kulturate y tomaría como ejemplo lo que se está haciendo en Tabakalera, en el Koldo Mitxelena de San Sebastián y en la UPV. Tabakalera organiza charlas de divulgación científica a cargo de Donostia International Physics Center (DIPC) y la Kutxa Fundazioa sobre Inteligencia Artificial, Nanotecnología, etc. Son una vez al mes. El Koldo Mitxelena organiza mensualmente Jornadas sobre la Historia de Gipuzkoa, organizadas por la Biblioteca y la Asociación de historiadores de Guipuzcoa "Miguel de Aranburu" además de lecturas poéticas acompañadas por la música de algún alumno de Musikene. En cuanto a la UPV decir que a nima a los no universitarios a asistir a cursos gratuitos de escritura, debates, oratoria, etc" Desconozco el coste estimado "pero sí sé que el equipo de traducción simultánea ronda los 2.000 euros. A esto hay que añadir los traductores para que la población interesada en un evento pueda acceder independientemente si este es en euskera o castellano"	Arrasaten badaude hainbat eragile dagoeneko antolatzen dituztenak herritarrak aldarrikatu dituen moduko jarduerak, adibidez, Biblioteka, Goienagusí, AZE, Zuztarrak Errotuz, AED etab; badaude beste erakunde batzuk ere Mondragon unibertsitatea, esate baterako, batu litezkeenak asmo honetan. Aldi bereko itzulpenari buruz adierazi beharra dago berriki erosi duela Udalak ekipo bat (20 laguntzako aurikular duna) 9.400 euroko kostarekin. Udalak kontratua du enpresa batekin itzulpen eta interpretaritzaz zerbitzuak emateko. Kultura ekitaldi baterako zerbitzuaren kostea izan liteke 544,5 eurokoa (BEZa barne)
Iraupen luzeko langabeziaren aurkako ekintzak	110	30.000€	Mejorar la situación de las personas desempleadas de larga duración. Para ello propone: Desarrollar un plan de comunicación para que dichas personas participen en programas de formación y empoderamiento	Se requieren más detalles sobre el plan de comunicación propuesto, y a partir de ahí, ponerlo en marcha.

Indarkeria matxistaren aurkako ekintzak	110	20.000€	Arrasaten ematen den indarkeria matxistaren eragin erreala antzemateko azterketa-prebentzioa bultzatzeko emakumeen kontrako erasoak errazten duten espazioak identifikatu eta indarkeria mota desberdinak (genero, sexuala, fisiko, psikologiko) identifikatzeko eta beraien eragina ezagutzeko hausnarketa egitea.	Urritik aurrera indarkeria matxistaren kontrako lehenengo planaren ebaluazioa eta II planaren diseinuarekin hasiko gara lanean. Puntu beltzen inguruko lana II. Planaren barne sartu ahalko da. II. Planaren ekintza bezala, Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasun Sailarekin elkarlanean egin beharreko lana da.
---	-----	---------	---	---

Emitza horien inguruko OHARRAK emaitzei buruz:

- Lehen postuetan geratutako 10 proposamenen artean hiru herritarrek aurten egindakoak dira. Irabazlea eta bigarrena aurtengoak dira.
- Lehenengo 3 proposamenak lanekin edo obrekin zerikusia dute.
- 9. eta 10. Proposamenek puntu kopuru bera dute, baina langabeziarenak lortu ditu lehenengo aukera bezala bozka gehiago.

6.4 HERRITARREK EGINDAKO EKARPEN GEHIGARRIAK

Bestalde, hauek dira gune presentzialetan herritarrek egindako bestelako proposamenak edo iruzkinak (Udaleko dagokien sailletara helaraziko direnak):

Herritarrek egindako proposamen berriak
Kalean eserleku gehiago jarri, besteak beste adinekoek eta ezinduek aterpean esertzeko aukera gehiago eduki ditzaten
Arrasateko ondarearen museoa sortu
Etxaluzen, arratsaldeko lehen orduan hotza egiten du, kalefakzioko ordutegia aurreratu daiteke? (Etxaluzekoak)
Birziklatzea: Bakarrik bizi diren adindun pertsoneri begira laguntza, kontzientziarazioa, ondo egiten dela (Etxaluzekoak)
Irisgarritasuna: espaloitan kotxerik ez, oinez zailtasunak dituztenei oztoporik ez jarri. Gazteak patineteetan espaloietatik oso azkar, oinezkoekin istripuak arrisku handia (Etxaluzekoak)
Etxeetako fatxadak konpontzeko baimenak ematerakoan, blokeka egitea, denak batera, aldaketa osotasunean ikusteko, adibidez, 3 atariko komunitatea bada, 3 atariak batera egitea konponketak eta txukuntze lanak (Etxaluzekoak)
Errekak garbitu, zikin daude oro har (Etxaluzekoak)
Kanposantua: Azaroaren 1eko egotera lotsagarria izan zen, 9:00etan bideak itxita, barandillakin mugatuta. Hori hobeto kudeatu, municipal bat bertan trafikoa gidatzen jartzea ondo legoke (Etxaluzekoak)
Zirkulazi zerga gehiegi ordaintzen dela eta San Andres auzoan ezinezkoa dela aparkatzea, "residentes" aparkalekuak egon beharko zirela dio herritar batek.

San Andres auzoan egiten dauden obretan jarri beharreko baldosak ondo jartzea, beste hainbat gunetan jarri orduko solte daudela eta euria egiten duenean urarekin bustitzen dela.
Garbigunean, kotxeei olio aldatzeko guneak aterpea beharko luke, euria egiten duenean dena nahiko siki egoten delako
Hilete zibiletarako eraikin bat barko litzatzatekela
Bidegorriek ez dute jarraikortasunik, etenak dituzte, ...eta sarea hobeto osatu behar da herri barruan
UribeAuzoan, erreka gaineko zubi parean (Emun parean) bidegorria eta oinezkoen espaloia elkarren ondoan doaz eta sustoak izaten dira
Espaloiak oso irristakor eta arriskutsu edonon, euria egiten duenean
Zabor ontziak asko daude, baina zabor ontzi inguruak lotsagarri egoten dira, zaborra lurrera botata,....
"Badenak" kendu behar dira eta kotxeak horren azkar ez joateko beste modu batzuk aurkitu. Zaharroi mina ematen digu kotxean badena pasatzen dugun bakoitzean, aparte, zaldibar ondokoa exagerazio bat da.
Otalorako kalean altamirara doan igogailua baino lehenago "baden" bat jarri eta zuzengune hori baino lehenago radarra.
Errebuelta kaleko espaloiak hobetu.
Espaloiak garbitu, hostoak kendu...
Gimnasia terapeutikoa, garai batean Etxaluzen Rosik ematen zuena, berriro jartzea.
General Garro kalean azera apurtuta dago, "se esta hundiendo"
LED argi berriak ondo daude, kontsumoa, aurrezkia, baina Malvinetan portal sarrerak oso ilun daude, argi gutxi dago
Bidegorriak txukundu, pertsona asko ibiltzen gara bertatik eta zaintzea merezi du
Gazteentzat estalitako toki bat.
Bidegorri sarea amaitzea Arrasatetik zehar (3 pertsonak)
Bizikleta asko lapurtzen ei dira: leku seguruak aparkatzeko.
Autoa aparkatzea oso garestia da Arrasaten.
Xaramela partean oinezkoak tarte batean kotxeen eta bizikleten artean joan behar dute. Arriskutsua.
Legarre plazako parkea hobetu eta estali
Erdiko kaleko zorua labankorra da. Hobetu.
SanJoxepetik Miraballesera doan SorDan bide publikoa berreskuratu
"Hauteskundeetan Santa Teresa, Makatxenan eta Erguinen igogailuak egingo zirela esan zen, baina oraindik ez dugu horrelakorik ikusi. Legegintzaldi honetan egingo dira igogailuok?"
Gazteentzako lokalak erregulatu
Kiroldegia: barruko instalazioak hobetu/ zerbitzuen prezioa garestia da
Alde Zaharreko (bereziki Ferrerias eta kantoiak) kaleak hobetu, lurra oso labankorra da
Autobus geltokia Obenerrekan, igogailuen ondoan

Crear parques orientados a gente adulta, no solo para niños
El bidegorri hacia San Prudencio está con el piso abombado y en algunos tramos es demasiado estrecho (sobre todo porque hay ciclistas que van rápido)
Oso ondo dago horrelako prozesuekin herritarroi hitza ematea, azken finean denok osatzen dugu herria. Partaidetzazko aurrekontuetarako jarritako partida handitu.
Deba ibaia garbitu, erreka garbitu.
Arrasaten gero eta gehiago dago segregazioa, zela hobetu? Eskola publikoa gehiago bultzatu udaletxetik.
Paretak garbiago egon behar dira, pintadarik barik.
Etxaluzen berogailua jar dezatela eskatu digute mahai askotan. Hotz egiten omen du.
Erguinetik Garagartza bidean eserleku bakarra dago Larreako gunean. Oso leku egokia da atsedena egiteko baina sarri okupatuta egoten da. Bigarren banku bat beharko litzateke bertan
Erguinen hasi eta Garagartzaraino ez dago komun publikorik, eta falta egiten du batek
Arrasate erdigunetik zeharkatuko dituzten bidegorri argiak behar ditugu, ume zein helduak bizikletaz seguru ibiltzeko modukoak
Hirigintza arlotik genero indarkeriarako puntu beltz ugari dago, eta puntu beltz berriak sortzen ari da Udala proiektu berriekin. Udala zorrotza(goa) izan behar da puntu beltzak argitzen eta berriak ez sortzen.
Obenerreka eta Santa Marina artean zebra bidea jarri.
Beren txakurren kakak jasotzen ez dituzten jabeei Udalak isunak jarri beharko lizkiekete
Otalora Lizentziaduna kalean, Arbolapeta eta ura botatzen duen errotondan artean, zakarrak jasotzeko dauden edukiontzi inguruan, Zebrabidea jartzea. Pablo Uranga eta Ignazio Zuloagako pasabide naturala bait da. Jende asko pasatzen da eta arriskutsu dago.
Ikastolak menditxik jaistea. Batez ere ume txikien eraikina. Jende asko joaten da umeen karroz eta aldapa handia dago, batez ere aiton-amonendako. Beste eraikin batetara mugitzea. Ferixalekua. Monterron, ...
Erdialdean Kafe antzoki antzekoren bat eitteko aukerarik dagoen azterketa-proiektua egitea.
Kiroldegian, igerilekuko aldageletako instalazioak txukun mantendu: adibidez, entxufeak konpondu
¿Para que habeis quitado los arboles de toda la vida de San Andres? No me parece bien.
Oso gutxi da 250000€ udalak daukan aurrekontu guztiarekin alderatuta, jakinda udalak gastu fijo batzuk dauzkala
Makatzenan, etxeetara ranpak ipintzea eskatu didate, eskailerak daukela etxeke atarira sartzeko, atari bakarra dagoela ranparekin
¿Solo tres proyectos para votar? Son pocos o es que hay muchas ideas para elegir
Poner mas bancos en el bidegorri, a la altura del caserio Larrea. Somos unas cuantas cuadrillas de 80 años que vamos alli casi todos los dias y no tenemos sitio para todos.
Larragain inguruan dauden hiru kaleetako errepideak norabide bakarrekoak dira. Apenas erabiltzen den espaloi handi bat dago. Horregatik, espaloia kendu edo estutu eta kotxeentzako errepidea bi norabidetan jartzea eskatzen da.
Errebuelta kalea oso zikin egon ohi da, ez dut garbitzen, zaindu beharreko kalea da
Kaleko eserlekuak, bankuak, egoera kaxkarrean orokorrean (Kurtzetxiki torre azpikoak adibidez)
Ikastolatik Santa Teresara igotzeko eskaileraren ordez, bestelako aukerak jartzea. Zailtasun fisikoak dituzten pertsonentzat oso zaila da hara igotzea.

SsntaTeresa: Jende nagusi asko dago auzoan. Orokorrean auzoa beraientzat egokitzea, eta herriko autobusarentzako geltokia (lurrean margotuta eta bi auto-aparkamendu kenduta nahikoa) jartzea. Beheko eta goiko geltikiaren tartean.
--

Eskola segregazioa parekatzea bi eskoletan
--

Zigarrolatik kalera bidegorria

Zarugalde: Trafikoa murrizteko azterketa egitea, oinezkoen segurtasuna bermatuaz.
